

## BALIO PROPOSAMENA

McBaxerri, ostalaritza arloan kokatutako fast-food enpresa berria da. Lasarte-Oriako Goiegi baserri zaharra oinordetzan hartuta. Antzinako Euskal Herriko baserrien arkitektura tradizionala mantenduz, XXI.mendeko estetika futuristarekin konbinatuta argia ikusi du gure proiektu berritzaile eta oparo honek.

McBaxerriren eginkizun nagusia, gure bezeroen gosea asetzea da, jate txiki bat garen aldetik. Gaur egungo gizarte azkar eta kaotiko honetan, jateko denbora tarte bat bilatzea zaila gauzatzen zaigu. Denbora eskasia saihesteko, jendeak hain ezagunak diren fast food jate txikietan jaten du, hori dela eta gure herriko produktuak eta osasuna alde batera uzten dira, eta hori konpontzeko McBaxerri® asmatu dugu. Etorkizunaren aitzindari gara.


Zentzua galduko luke gure proiektuak baratze arrotzetatik ekarriko bagenu produktuak. Gure enpresaren marka eta nortasuna da erabiltzen ditugun produktuak bertako lurretan haziak izatea. Horrek erakartzen baititu bezeroak: janari azkarra, baina batez ere ONA, kalitatezkoa, bertakoa. Gure sektorean ezberdindu egin behar genuela iruditu zitzaigun bezeroak erakartzeko eta horrela egin dugu. Gainera, ezberdintza honetan aitzindariak izan gaitzekela uste dugu. Gure atzetik gurea bezalako enpresak ikustea da helburuetako bat. Gizarteari erakusten ari baikara janari azkarra osasuntsua ere izan daitekela eta bertako ekonomia sustatzen lagun dezakela

Gure eskaintza oso zabala da. Alde batetik hanburgesa desberdinak eskaintzen ditugu gustu eta ezintasun desberdinetara egokitzeko. Gainera hanburguesak gustuko ez duen jendearentzat taloak ditugu, hauek hiru zapora desberdinekoak. Edarien eskaintza oso zabala da ere. Gure iturburutatik zuzenean zure edalontzira dijoan ura, freskagarriak eta alkoholdun edariak dira horren adibide. Etxeko berezitasuna, ordea, McXaardo da. Gure larreetako sagarrondoetan hazitako bertako sagarrak, pestizidarik gabekoak.

Gure lana egiteko modua oso berritzaile da ere.

Lehendabizi, lehengaiak eskuratzen ditugu, lehen aiputako moduan gure lurretatik, baita hornitzaileek hornitutakoak. Produktu hauek gauez sukaldatzen dituzte sukaldaritza eskoetan graduatutako hainbat sukaldari kualifikatuk, betiere lan baldintza duin eta erosoetan. Produktu guzti hauek hurrengo egunean salduak izango dira eta bitartean gure biltegietan dauden hozkailu handietan kontserbatzen ditugu. Honela, bezeroak eskaera egitean, minutu eskasetan berotu eta eskuragarri izango du eskakizuna.

Bestalde, bezeroen joan etorria interesatzen zaigu, egun guztian zehar saldu beharreko stocka saltzeko. Horregatik sistema berezi batzuk instalatu ditugu jatetxean hurrengo suertatzeko: batetik, kristalera handi bat jarriko



dugu mahaikideak inkomodo sentiarazteko. Bestetik, aulkiak eta mahaiak ez dira guztiz erosoak izango, honela bezeroak jan bezain laster irtengo dira jatetxetik. Amaitzeko, esan beharra dugu oso irisgarriak garela bai aplikazioa edo instagram bidez. Honek bezeroarengana hurbiltzen gaitu. Appak guri buruzko informazio osoa eskaintzen dizu; menua, eskaintza bereziak, non gauden, nor garen, metodoak, etab. Metodo honen bitartez, belaunaldi gazteenak ere erakarriko ditugu McBaxerrira.